


# Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 13. zbkta. 1995eko ekaina. 100 pzta.



## Inaxio Tolosa, herriko artista bat

**Erreportaia**

**Aldizkari  
honen 1.  
urteurrena**

**ZORIONAK  
GURI ...**

**Kirolak**

**Mountain  
Bike-aren  
arrakasta**

**Festak**

**San Romualdo  
eta San Pedroak  
ganean**






(Javier Carballok utzitako argazkia)

*Zumaiako portuak beti izan du sarrera aldrebes xamarra, eta goiko argazkian ikusten den bezela noizean behin olatu jolastiek itsasuntziak Santio hondartza bixitatzerara eramaten zituzten. Duela 30 urte inguruko argazkia da eta orain badakigu leku horretara behintzat ez dela untzi gehiago joango.*

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL**  
**EUSKADIKO KUTXA**



ZUMAIako INSTITUTUA  
Aita Mari Auzategia, z/g  
20750 - ZUMAI  
86 08-09/86 08 10

Zumaiako Udalak diruz  
lagunduriko aldizkaria





**BALEIKE**

**HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea  
tfnoa: 86 10 56

argitaratzailea

**ZUMAIAKO GAZTE  
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua  
Esther Martinez  
Itziar Manzidor  
Xabier Azkue  
Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta  
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea,  
Miriam Romatet,  
Aitor Leiza, Izar Martin,  
Imanol Manterola, Ander  
Hormazuri, Jon Manzidor

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 600 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain  
hartzen aldizkarian  
adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzunkizunik.

Argazki Zaharra.....	2
Hitzaurrea.....	3
Iritzia:Hontzak arriskuan.....	4
Gutunak.....	5
Gai Librean.....	6
Ze Berri?:Hauteskundeak.Depuradora.Foronda.....	7
Elkarrizketa: Inaxio Tolosa.....	10
Inkesta fotografikoa.....	13
Erreportaia: Aldizkariaren urteurrena.....	14
Komikia: .....	16
Sexualitatea: Besarka nazazu.....	18
Olarru zopa .....	19
Izerdi patsetan: Mountain Bike .....	20
Gaztedia: Gazte Batzordea .....	22
Literatura: .....	23
Festak:.....	24
Kultur Agenda:.....	26
Musika:Tapia eta Leturia Band.....	29
Denborapasak.....	30
Merkatu txikia.....	31
Lehiaketa .....	32

**H**itzaurrea

*Oraindik ere tartaren goxotasunak ahotik kendu gabe eta azterketen zapore mingotsa dastatu beharra degunean, ale hau nola edo hala kaleratzen saiatu gera. Izan ere ez genuen garairik aproposena aukeratu lehen alea ateratzeko eta orain inkestekoen modura azterketez kopeteraino gaudenean ez da ospakizunetarako asti haundirik izaten. Gutunak eta iritzi kurioxoak ez zaizkigu falta behintzat; Inaxio Tolosa ere harrapatu genuen azken orduan, txispak ateratzen; ikasten ari den jendea probokatu nahian Romualdo eta Kepa Deunetako egitaraua ere hor daukazue. Animo gazteak! Ea mendiko bizikleten modura oztopo guztiak gainditzen dituzuen amildegian behera erori gabe. Besarkada bat!*

**PREMIAZKO TELEFONOAK:**

Kultur Etxea .....	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44



# HONTZAK ARRISKUAN

Kaixo adiskide:

Agian hau irakurtzen duzunerako izango duzu gure berri zuzena, baina bada ezpada ere, eta gaur egun iruzurti asko dagoela-ta, lerro hauen bidez gure burua aurkeztu eta gure helburu nagusiaren berri eman nahi dizugu.

Agian gure lagunen berri izango duzu. Hona hemen HONTZA: Estrigiformeen ordenako zenbait hegazti harrapari gautarren izen arrunta. Buru zabala eta aurrerantz begiratzen duten begi handiak dituzte. Normalean lumaje arrea dute eta buruan lumazko bi motots dituzte. Nork ez du inoiz hontzaren bat ikusi, gauean, gutxien espero duenean beztasuna zeharkatuz? Baina gure hontza, beste hainbat animaliaaren moduan, arriskuan dago; eta gure asmo nagusia arrisku hori ekidin eta hontzaren alde borrokatzea da.


Gure elkarteko hainbat kide Zumaian etxez-etxe eta baserriz-baserri dabilta, harrera ezin hobea jasoz. Helburua: Gure Parrokian habia eginik duen hontza familiarentzat eguzki betaurrekoak erosteko dirua biltzea. Duela hilabete batzuk argi berriak jarri zituztenetik ez dute pitorik ikusten, eta beren erloju biologikoa ere nahastuta dabil, ez baitute asmatzen noiz den eguna, noiz gaua

## P.H.B.E.

### (Parrokiko Hontzei Eguzki Betaurrekoak)



eta ez dakite noiz irten ehizera. Gure elkarteko kideak zure atea jotzen dutenean, zabaldu: arazoa zehaztasun osoz azalduko dizute. Ziur gaude ahal duzun neurrian lagunduko diguzula.



Badakigu agian arazoa beste era batera konpon litekeela. Ez pentsa, lehenengo mamira jo genuen: "zertarako argi horiek?" galdetu genuen, eta inork ez zigun erantzun zuzenik eman. Eta argi horien kontua oso larria delakoan gaude. Adibidez, ba al zenekien lehengoan kotxe bat Santioko hondartzara erori zela, Getariatik zetorrela argi horiek itsututa? Eskerrak orain hondartza haunditu egin duten eta itsasbehera zegoen.

Zertarako argi horiek? Denetarik entzun dugu: parrokia

lapurtu egingo dutela beldur direla; Iberduerok propaganda egiteko era bat dela (ze merke dagoen argindarra!); ditzosozko kirol portua dela-ta, paola jubilatuta eta gauez itsasontziak gidatzeko dela; Sondikako aireportu bidean erreferentzia berria dela hegazkinentzat; Debarrei enbidia emateagatik dela; elizara jende gutxi joaten dela-ta, horra hor parokoaren inizatiba berria, hor daudela gogorarazteko; Zumaiako zenbait auzotan argi gutxi dagoela-ta, horrela konpondu nahi dela argiteria arazoa; eta abar, eta abar. Baina pulamentuzko ezer ez, eta ondorioak zein izan litezkeen ez dakigunez, bada ezpada ere ez gara ausartu ikutu edota kentzera. Bestela ere nahikoa arazo badugu txapelgorriekin.

Horregatik, eguzki betaurrekoen neurri zehatz eta erraz hori hartzea erabaki dugu. Optika batek ere beherapena agindua digu, baldin eta gero hontzei argazkiak ateratzen badizkiegu, eta horretan ere saiatuko gara.

Zure laguntza ezinbestekoa dugu gure egitasmoa aurrera eramateko. Ahal duzun neurrian lagunduko diguzulakoan agur, eta Jainkoak (eta ez parrokiko argi berriak) argi gaitzala. ■

**LANDARE  
LOREDENDA**  
Baltasar Etxabe, 5  
Tel. 862472 ZUMAIA

**ZUMEA  
TABERNA**  
Erribera kalea, 2  
Telefonoa: 861125  
ZUMAIA

**Amertze**  
Erribera Kalea, 6  
Telefonoa: 86 17 07  
Fax: 86 17 07  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



## HABE-RI AKORDIOA LORTZEKO BENETAKO BORONDATEA ESKATZEN DIO AEK-K

Iazko ekainaren 6an AEK eta Eusko Jaurlaritzaren arteko aurreakordioa sinatu ostean zabaldu zen negoziazio prozesua, hasieran bost hilabetetan burutuko zela esan bazen ere hamaika hilabete igaro dira eta oraindik arazoak daude ados jartzeko.


Desadostasun nagusiak hiru puntutan ditugula jakinarazi nahi dugu:

- AEK-ko irakasle goaren normalizazioa.
- AEK-ren onarpena.
- Diru aldetiko trataera.

Lehenengo puntuari dagokionez, iaz sinatutako akordioan gai honetaz jasotzen zena gogoratu nahi dugu; hain zuzen ere aipatu normalizazioak irakasleen oinarrizko prestakuntza izango zuela abiapuntu. Hala ere HABE-ren ordezkariak, oraindik, arazoak planteatzen dituzte baieztapen hau ondorio guztiekin garatzeko.

AEK-ren izaera jadanik onartua zegoela uste genuen arren, HABE-ren ordezkariak oraindik ere AEK-ren izaera bera erakunde gisa "zalantzan" jartzen dutela esan zuten, HABE-k euskal tegegi bakoitzeko trataera ezberdina proposatzen duela gaineratuz.

Dirulaguntzei dagokenez iazko kopurua 100 milioi pezeta igotzea proposatzen iazko kopuru berbera eskaintzera igaro dira HABE-koak.



Bitartean diskriminazioak bere hortan dirau AEK-ko euskal tegegi homologatuek izozturik dituzte beren dirulaguntzak, gainontzeko homologatuei modulua %30 igo dieten bitartean, eta AEK-ko euskal tegegi libreek eta homologatu berriek aurten ez dugu oraindik pezeta bat ere jaso.

AEK-ren ustez E.A.E.-n akordio historiko baten aurrean egon gaitzke baina horretarako bi gauza behar dira: batetik benetako borondatea HABE-ko ordezkariak aldetik gizarteak eskatzen duen urrats hau emateko eta bestetik gizartearen bultzada hau ongi buka dadin.

### ZUMAIAKO AEK

### ESKERRAK EMANEZ

INPERNUPE Kultur Elkarteak, aurtengo San Telmo festetan antolatutako "Itsas-tresnen" erakusketarako jasotako laguntza eskertu nahi du, eta erakusketa honetarako tresnaren bat utzi duten guztiei banan bana eskerrak ematea zaila gertatzen denez, ohar honen bidez, eskerrik beroenak eman nahi dizkie.

Inpernupe K.E.

## GU EZ GOAZ-EN DEIALDIA

Hurrengo ekainaren 14an Zumaiako gazte batzuek Gurutze Gorrian aurkeztu behar dute beraien burua soldaduzkaren Ordezko Zerbitzu Soziala betetzeko asmoarekin. Gazte hauek soldadutza egiteko prest ez daudenez eta ordezkorik ere onartzen ez dutenez, egun horretan Zumaiako Gurutze Gorrian ez dira azalduko.

Zumaiar gazte kopuru dexente dago jadanik egoera horretan ia inork jakin gabe. Horien guztien jarrera jendearen aurrean erakusteko eta Gurutze Gorria erakunde moduan ejerzitoarekin daukan elkarlana salatzeko, hilaren 17rako ekitalditxo bat prestatu dugu antimilitarismoaren inguruan mogitzen garenok. Egun horretan Gurutze Gorriaren gaineko balkoian bilduko gara eguerditik arratsaldeko 8retara, joango ez diren intsumisoei elkartasuna eta babes adierazteko. Eguerdian hamaiketako egingo dugu; bazkalondoren, 4etarako, IntsuMUSioa txapelketa antolatu dugu eta 7 t'erditan ahal den jende gehiena biltzea eskatzen dugu bertatik manifestaldiritxoa egiteko asmoz.

Beraz, badakizue, intsumisioa eta antimilitarismoa defendatzen duzen guztioi deia zabaltzen dizuegu ekainaren 17an protesta ekintza horretan parte hartzeko (ahalik eta jende gehiena beharko baitugu aurrera ateratzeko).

ZUMAIAKO TALDE  
ANTIMILITARISTA

**DISKO-BAR**

*Margi*

Alai Auzotegia 2.

**MENDI - ONDO**  
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
  - \* Banakoak
  - \* Kolektiboak
  - \* Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

Axular 14  
20750 ZUMAILA

Telefonoak:  
860074 - 861569



AKORDAU GABE

ZAHARTZEN



JOXEBA  
OSA

AUKERA ZAILA

Baleike-koek zerbait idaztea eskatu zidatenean azkar esan nien baietz. Errazena egin nuen, bai horixe! Zeren laster etorri zitzaidan aukera zail bat egin beharra: "Zeri buruz idatzi?". Pentsatzen hasi, eta gai pila bat etorri zitzaizkidan burura: hauteskundeetako alderdikeriak... Euskal Herrian ditugun zatiketa eta arazo latzak... "Baleike" gure aldizkariak urte bat betetzeagatik eta egiten ari den den lan bikainagatik merezi dituen ZORIONAK... Zumaiako herria Saharauiekin senidetzeko sortu den ekimen txalagarria... Soldaduskaren eta militarismoaren aurkako borrokak duen arrakasta pozgarria... Bosnia, Txetxenia eta munduko beste hainbat gerra... Indarkeria politikoen eta beren ondorio larrien luzapen zentzugabea eta Euskal Herrian BAKE on bat lortzearen beharra... Langabeziaren arantza mingarria... Gazte askoren etorkizun iluna... Euskararen erabilpen maila kaskarra Zumaiako kaleetan... GIZAKIA HELBURU edo "Proyecto Hombre"koek eta beste talde askok egiten duten lan zoragarria... Komunikabidez jositako gizarte honetan sufritzen dugun inkomunikazioa (maila guztietan: etxean, lagunen artean, kuadriletan, politika mailan, etab.)... Kitzak "META" izenburuz Baleike-n idatzitako artikulutxo mamitsu eta pozgarria... Gure zibilizazio honek bizi duen norabide-krisialdi sakona eta jendeak bilatzen dituen irtenbideak (zeri eusten dion, nondik "engantxatzen" den, eta abar)... Sindikatuek gaur egun duten jokabidea... Utopia gehienen krisialdia... Gure bizimoduak Hirugarren Munduan eta sozialistak izandako estatuetan dituen eraginak... Ekonomiaren mundializazioa eta ingurugiroaren hondamena... Tolok (edo nahiago baduzue Inazio Tolosak) eta bere lagunek eskaintako antzezlan zoragarria...

Baina tira! Ikusten duzuen bezala, ia espazio guztia joan zait gaiak aipatzen, bat bera ere jorratu gabe. Bueno, egia esan nola edo hala jorratu ditut, edo gutxienez neure aukerak egin ditut (irakurri, bestela, poliki-poliki gai bakoitza, ea zer ikusten duzuen).

Eta azkenik, beste gauza bat oraindik idealistak zaretenei, bihotzean oraindik odola duzuenoi, bizitza hobe baten alde lan egiten jarraitzen duzuenoi: Eutsi goiari! Izan Zoriontsu! Ez galdu itzaropenik! Bizitzak merezi du-eta!



JOSU IRIBAR "OLALDE"

Urte berria hasi genula oraindik zenbat denbora negua ere azken unean egin zitzaigun gogorra mendiko elur jausi maltzurak zeinek ez ditu gogora kukua ere asko kostata heldu zitzaigun ondora badirudi aurtengo honetan ez dabilela gustora.

Ekainean gaude jadanik urte erdiko aroan egunik luzeenen garaian argitasun oparoan ardiak ere laster hasiko dira noski abaroan Udara eta Udazkena ere etorri bezala joan hortik atera kontuak gure martxa a zer azkar dijoan



JAN BRAUN

BELARDENDA  
**SIWA**



Esther Blanco  
OSTEOPATA-MASAJISTA  
Basadi 5-C behea  
Tlf: 143404 - 860012

**Huntza, o.k.**



DISEINUA  
MANTENUA  
ERABERRITZEA  
ZUHAITZ, ZUHAIKKA  
ETA FRUITONDOEN  
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Amaiako plaza, 7  
Tel.- Fax: 862385  
20750 ZUMAIA



# ALDAKETARIK EZ

## Alderdi guztiek lehengo zinegotzi kopurua mantentzen dute

Maiatzeko hauteskundetako emaitzetan ez zen sorpresa handirik izan eta zinegotzi kopuruari dagokionez lehen bezela mantenduko dira; hau da, PNV-EAJ-k 6 zinegotzi izango ditu, Herri Batasunak 3, Eusko Alkartasunak 2 eta PSOE-EE-k ere 2. IU da aurkeztu ziren zerrenden artean ordezkari bat bera ere lortu ez duen alderdi bakarra, 163 boto jaso zituen arren.

Emaitzak aurreko udal hauteskundeekin alderatuz gero, boto kopuruari begiratuaz ez da mugimendu handirik somatzen, baina azken hauteskundeak hartzen baditugu erreferentziatzat EA eta PNV-k igoera aipagarria izan dute.


Hala ere, ezin dira hauteskunde ezberdinak hain erraz parekatu, adibidez azken hauetan PP-k gure herrian zerrendarik ez duelako aurkeztu eta berrehundik gorako boto horiek alderdi bat edo bestera joango ziren.

Orain elkarrizketa eta eztabaiden garaia dator, eta ikusi egin beharko da gure herrian ere tripartittoa edo zer talde osatzen den. Seguru samar ikusten da behintzat Ricardo Peña izango degula alkate hurrengo urteetan.

Orain, kanpainen agindutakoak gogoan har ditzagun eta ikusiko dugu hemendik lau urtera, bizi bagera behintzat, zer egin duten eta zer ez.



Honako hauek izango dira hurrengo lau urteetan Zumaiako Udala osatuko duten zinegotziak, aldaketa edo ordezkaketarik gertatzen ez den bitartean, noski. ■



### PNV-EAJ

Ricardo Peña  
Asier Esnal  
Montse Arana  
M<sup>a</sup> Eugenia Arrizabalaga  
Xabier Albizu  
Jose Migel Antia

### HB

Migel Aperribai  
Imanol Garate  
Arantza Urkidi

### EA

Pedro Uribe  
Jesus Alkorta

### PSOE

Felipe Gutierrez  
Enrique Rubio

Auto - Konponketak

**ELKAR**



Estazioko kalea  
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

**JOSEBA OSA**  
**- ITZULPENAK -**

EUSKARA-GAZTELERA-  
KATALANA-INGELES-  
FRANTSESA

tel / fax: 148065



# Depuradora non jarri behar da?

## Azterketa batek Paol inguruan kokatzea gomendatzen du

Gure ibaira doazen ur zikinak tratatuko lituzkeen depuradora baten beharra aspalditik somatu da gure herrian. Honelako eraikuntza eta instalakuntzak ezin dira, hala ere, edozein lekutan eta baldintzatan jarri eta horregaitik eskatu zitzaion Leonardo Torres Quevedori azterlan hau.

Fundazio honek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentuaren babesarekin, bukatu du bere azterlana eta lehengo maiatzaren 9an egin zuen aurkezpena Foronda kultur Etxean. Beste gauza askoren artean grafiko, irudi eta ordenagailu-simulazioen bidez kokaleku bakoitzaren abantaila eta desabantailak azaldu zituzten.

6 aukera bereizi zituzten kokalekuaren, depurazio sistemaren


eta ebakuazio bidearen arabera. 3 kokaleku egoki daudela ikusi da: Paolaren ondoan bat, Ayra-Durex atzekaldean bestea eta Egurko inguruan azkena.

Aukera gehienetan ur zikinak bildu, depuratu (1. edo 2.mailan) eta Paol ingurutik itsaspeko emisario baten bidez kanporatzen dira, itsasora. Beste aukera batean, ordea, urak 3.maila batean depuratu eta ibaira zuzenean botatzea planteatzen da, Egurko atzekaldean.

Aukera hauetako bakoitzean kontuan hartu da euri eta ekaitzek izango lituzketen ondorioak, eta isurketek Santio eta Orrua hondartzetan bainurako uren kalitatean ze eragin izango zuten, ibaiko Oxigenoaren kontzentrazioarekin batera.

Azterketaren arabera, datu eta xehetasun ugari kontuan hartuz, egokiena depuradora Paol aldean kokatzea dela ondorioztatu dute, baina honela Kostako Legearen egiten da topo.

Aukeratuko proiektuaren arabera 900 eta 1.500 milioi artean kostako da depuradora hau eraikitzea. ■



Proiektu hau onartuko balitz, depuradora Inpernupe inguruan kokatuko lizateke.

**ΔΙΣΜΑΝ-ΚΟΣ S.L.**  
SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALA  
Iraeta auzoa z/g Aptdo. 78  
Tlf/Fax: 14 81 24 20740 IRAETA - ZESTOA

**NIKOL-ENE**  
taberna  
Amaiako plaza Tfnoa. 861440



# Aldaketak garrantzitsuak Forondan

## Parke Botaniko bat egin eta bigarren solairua berrituko da

Urola-Kostako Mankomunitatea izan da beste zenbait gauzen artean Foronda Kultur Etxeko aldaketen ardura hartu duena. Batetik eraikuntzaren inguruan Parke Botaniko bat antolatu nahi da. Eta bestetik, liburutegiaren goian dagoen bigarren solairua berritu nahi da. Oraingo obra hauekin, gelen banaketa egokiago bat egiteaz gain, bilerak egiteko aretoaren bat ere prestatzeko asmoa dago.

Bai lorategiaren eta baita bigarren solairuko lanak aurrera eramateko LANBIDE ETXEen proiektua aprobetxatuko da, hau da, lorazaintza eta igeltsaritza ikastaroak emango dira Forondan bertan eta ikasleek beraiek egingo dituzte lan guztiak. Zuzendari bat eta bi monitore dituen programa honetan, INEMeko zerrendetatik aukerartutako luzaroan langabezian dauden 20 langabetuk parte hartuko dute.



*Aspaldidanik ikusten zen lan hauen beharra.*



### GRADA BERRIA AITA MARIN

Futbol denboraldia bukatu bada ere, lehengo hilean jarri zuten Aita Mari futbol zelaian grada berria. Bazkideek eta jendeak aspalditik eskatzen zuten gauza bat zen eta azkenean lortu ahal izan dute. Orain Zumaiako bera hobetoxeagoa joatea bakarrik falta da.



Basadi Auzategia, 10-A atzean      Telefonoa: 862228      ZUMAI A

### xirula



ARGAZKI ETA BIDEO  
ERREPORTAIK  
ERREBELATZEAK  
KAMARAK  
MUSIKA

TELEBISTA  
BIDEO  
HI-FI

Erribera kalea, z/g  
Tel. 861705

20750 ZUMAI A



## Inaxio Tolosa:

# "Antzerkia eta Musika lotzeak satisfakzio haundia ematen dit"

Gazte-gaztetandik antzerki eta musikan bete-betean sartuta, nahiko ipurterrea denez, Inaxio batean eta bestean ibili da. Maskarada eta Bederen Ien, Antxieta taldean zuzendari, telebistan, eta herriko saltsa ugaritan. "Izan ala..." azken lana estreinatu ondoren, Musika Eskolan harrapatu degu, bere kontu batzuk lapurtu asmoz.

### Nolakoak izan ziren antzerkiko lehen pausoak?

Kandidorekin hasi ginen Zumaian, 15-16 urte nituela eta asteen bitan elkartzen ginen. Institutuan ere zerbait egin genuen, Bertol Bretchen lan bat adibidez. COU bukatu ondoren Gasteiza joan nintzen, DENOK antzerki eskolara, baina etxean administratibo ikastera nihoala esan nuen, hasieran. Hurrengo urtean sartu nintzen ANTZERTIn frogak pasa ondoren. 15 lagun inguru geunden: Kandido, Elena, Kontxu Odriozola, Mikel Garmendia, Xabier Agirre, Patxi Santamaria, ... Bi urtez egon ginen egunero 8 ordu sartzen, beti antzerkian pentsatzen.

Ondoren ni udako histori batera apuntatu nintzen; Els Joglars-ek antolatzen zuen ikastaro bat zen eta oso puntu ezberdinak zituen; oso dibertigarria izan zen.



Maiatzaren 26an izan azken lanaren estreinaldia eta oso harrera ona izan zuen.

### Hortik arlo "profesionalera" pasa zinen?

Bai, hori zen hurrengo pausua. Baina aurrena kale-antzerki batean ibili nintzen; Ben-Benuto nintzen eta txabolatik eramandako oilo bat hipnotizatzen nuen. Dena sasi-italianoz egiten genuen eta bukaeran txanponak jasotzen genituen.

### "Izan ala ..." arina eta troteroa izateko pentsatua dago

Handik segituan Maskaradan sartu nintzen, "Gastibeltzaren Karabinak" lanean. Oso montaje berezi eta haundia izan zen. Marc Legasse zen idazlea eta hau genio bat

denez oso fantastikoa izan zen lana. Sitges-en ere egon ginen lan honekin, euskeraz antzeztzen.

### Zumaian ere zerbait egin zenuten ezta?

Bai. Hogeita piko gazte elkartu ginen kaleko obra bat prestatzeko, emakumearen eguna zela-eta. Gauza oso simple eta polita izan zen. Gero Ramon Eiguren sartu zen tartean eta Luis Danielek idatzitako lan bat ekarri zuen, "Hey ahi voy" izenekoa eta oso montaje potentea izan zen. Nik aktoreen zuzendaritza eraman nuen eta Ramonek beste gutzia.

### "Itzurungo Uhinak" jubilatuen taldearen zuzendari ere aritu izan zera.

Bai, eta oso gustora nago esperientzi harekin. Han egoten ziren



### Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19  
20750 ZUMAIA

Telefonoa: 861433  
Fax: 861067

MAITE  
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen  
sendabidean

Amaia plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4  
Telf - Fax: 14 34 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



denak txintxo-txintxo, beren lana egiteko gogo eta ilusio izugarriarekin. 3 lan egin genituen eta ondoren etorri zen "Jesusen jaiotza", baina hau beste kontu bat zen.

## Herriko jende ugari hartu zuen parte, ezta?

Izugarria izan zen, 1.300 ikusle egon ziren bi emanalditan. Zaharrek oraindik ere oso barruan zuten obra, testuak eta kantak buruz zekizkiten, eta abar. 60 urte ziren ez zela egiten eta oso idealizatua zegoen. Udaletxetik laguntza haundia jaso genuen eta oso ikuskizun ederra izan zen: banda, koroa, dantza, 25 aktore, eszenarioa zabaldu zen, Kandido kabletik zintzilik jarri genuen, ... Zumaian badago ohitura bat eta jendeak erantzuten du, ondo pasatzen duelako.

## Aspalditik dago Zumaian antzerkirako giroa.

Gerra aurretik bi talde zeudela badakit eta hiru ere egon omen ziren garai batean. Batzokioek eta Circulo Carlistakoek Gabonen inguruan ia asteburuero teatroa egiten zuten eta kompetentzia haundia omen zegoen.

## Azken antzezlan

### Zer da "Izan ala ..."?

Lan honetan neure tokia bilatuz aritu naiz. Zumaiatik kanporako proiektio bat bilatu nahi izan degu. Hemengo jendeari aukera bat eman nahi zaio, estruktura errez eta ireki batez, Donosti edo Bilbora joan beharrik izan ez dezan.

Prestakuntza berezia izan da, zerotik hasi geralako. Libertade

haundia dezu, eta ez dakizu zeri heldu. Ze gai ikutu nahi ziren pentsatu genuen, sketchak antolatu eta hauek biltzen eta erlazionatzen aritu gera. Sentsazioen historia bat da.

## Gaztetan kontzertu espontaneoak egiten genituen

### Gustora geratu al zerate azken emaitzarekin?

Bai, bai. Estreinaldiarekin aldi edo etapa bati amaiera eman diogu, eta orain beste era batean lantzea tokatzen zaigu. Emanaldiak ematen dituzun bitartean antzezlan bat ez da sekula amaitzen, ez da pelikula bat bezela. Zumaian espero baino hobeto erantzun du jendeak eta sorpresak ere izan ditugu jendearen erreakzioekin.

### Honekin zure traiektorian ere aldaketa bat ematen dezu?

Bueno, nahi nuen zerbait aldatzea. Ez da erreza izan. Ia bi urte pasa ditut historia honekin bueltaka. Orain HITZERDI taldea Euskal Herrian ezagutaraztea falta zaigu eta marketing-a sartzten da tartean. Hain lan sinplea izanda aukera gehiago dituzu toki gehiagotan sartzeko, merkeago da, areto txikietan egin daiteke, ... Arina eta troteroa izateko pentsatua dago.

### Zuzeneko musika ere sartu dezue lan honetan ...

Bai, musika beti izan det oso aldamenean oso ganean, oso azpian,



Hemen dezue Tolo, kilo batzuk gutxiagorekin, Bederen 1 taldearen "Erreleboa" lanean (1988)

**Taosa**

Erribera kalea, 17  
Tlf: 14 32 56

### Salmentak:

- Untziak (Jeanneau, Rodman, etab.)
- Surf tabla eta Bodyboard (Taosia, H. Buttered)
- Arrantzako artikulua

KONPONKETAK, PLASTIFIKATUAK, POLIESTER, PINTAKETAK,  
ANTIFOULING IPINTZEA, OSHOSIS TRATAHENDUA.  
AURREKONTU ETA IKERKETA TEKNIKOAK EDOZEIN HOTATAKO  
ERREFORMA ETA KONPONKETARAKO.

**S**

DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behean  
Telefona: 862051

SUKALDEKO  
ALTZARIAK

20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)



beti inguruan. Asko gustatzen zait, gainera, zuzeneko musika izateak, beste dotoretasun bat ematen dio. Gero gertatzen da jendeak uste duela erdia grabatuta zegoela. Antzerkia eta musika lotzea oso inportantea da, eta neri satisfakzio handia ematen dit.

## Musika kontuak

### Gaztetan musika ala antzerkia zen lehenago?

Hasieran musika zen gehiago, hemen errezagoa delako musikarekin hastea. Aurrena solfeo, gero txistua eta azkenean klarinetea jotzen ikasi nuen 14 urterekin. Bide batzuk badaude hori lantzeko.

### Bandako kontuak utzita nola hasi zinen musika munduan?

Aurrena flautarekin talde bat egin genuen, Folk-ekoa *Txardango* izena zuena. Gero *Beti Eskamak Kentzen Blues Band* montatu genuen eta oso xelebrea zen, pinu artean entsaiatzen genuelako; oso dibertigarria zen. Amaiaiko plazan Viva Españaren azpian ere jo genuen; kontzertu espontaneoak izaten ziren. Barricadaren telonero ere izan ginen San Pedro batzutan. *Os Gallardos* taldean ere aritu naiz, batean eta bestean jotzen. Neretzako gehiago izan da musikaren saltsa bizitzea, ondo pasatzea, dibertitzea, benetako talde bat egitea baino.

### Oraindik ere instrumenturik maiteena klarinetea al da?

Bai, tronpeta eta pianoa jotzen ere hasi naiz baina oraindik berdeegia



Ezkerretik hasita *Pako Aristi, Antxon Elosua eta Tolo*, lehen musika taldearen argazki batean.

nago. Orain lehen aldiz irakasleak dauzkat Musika Eskolan eta hau beste gauza bat da: teknikak, arnasa nola hartu, eta abar.

### Musikaz gain, denbora librearekin zerekin betetzen dezu?

Denetik: pasiatu, telebista ikusi ere bai, zoritxarrez, ... Aspertzeko astirik ez daukat. Egunak azkar pasatzen zaizkit, azkarregi batzutan.

*"Jesusen jaiotza" antzezlanaren izugarria izan zen*

### Zerk kezkatzen zaitu?

Denak. Nahiko kezkatia naiz. Mozkorraldiak bezala etortzen zaizkit kezkak, boladak izaten ditut.

Gizakiak eta kulturak kezkatzen nau, jendeak ez du ia ezertan parte hartzen. Norberarentzako gauzak egitea, pintatzea oso aberatsa eta mesedegarria da. Pintura asko gustatzen zait, gauza kreatibo guztiek erakartzen naute.


### Animalien mundua ere oso gustokoa dezula jakin degu.

Txikitatik animalizale fama izan det, familiako kontua da gainera. Etxean bertan txakurra, txoria, kilkirrak, zamorroak denetik izaten genuen. Gauza pila bat ikasten da animaliekin bizitzen: sexu kontuak, potereen jokuak. Ikusgarria da adibidez katuek ze harreman dituzten. Oso mundu majikoa iruditzen zait, errez emozionatzen naiz animaliekin, baina aspalditik galduta daukat harreman hori, ezin naiz denera iritsi. ■



Erribera kalea Telefonoa: 861523  
ZUMAIA

## SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416





**Aitor  
Ramos**

7.maila ikasten ari naiz ikastolan. Orain arte nahiko ondo. Ez naiz bezperan hasten ikasten, lehenago, bestela... Gero REM pentsatzen det egitia. Eta lagunekin ikastia gustatzen zait.



**Esti  
Mora**

Bezperan hasten naiz ni. Kalian buelta bat eman, gero afaldu, eta ondoren pixkat ikasi. 1.REM ikasten ari naiz Zumaian, eta gero ailatuko da etorri beharrekoa!



**Iñaki  
Etxabe**

Estudiantian bizitza nahiko ona da. Baina danok nahi deuna da, kurtsuan zehar egin ez deguna esaminetan ateratzia. Nik Kimika ikasten det Donostin, eta aurrera noa nola edo hala.



**Iban  
Suarez**

Si ni ez nabil eskolan ya! Ez nabilela eskolan. Nazkauta neolako utzi nun, agobiauta neolako.



**Estibalitz  
Iriondo**

COU ikasten ari naiz Iraurgin. Orain arte ondo nijoa, nahiz eta urte honetan pixkat gehio kostatu. Normalian bezperako usten det, eta hori da arazua.



**Karmen  
Hernandez**

Psikologia ikasten ari naiz eta 3.mailan nabil. Errepikatzen ari naiz baino ... Nik azkenengo egunean ezin izaten det dana ikasi, gutxienez azkenengo hilabetean jarduten det.



**Asier  
Urbietta**

Orain esaminetan nago eta agobiauta. Dana bezperako uzten det. 2.BUP ikasten ari naiz Zarautzen, eta gero ez dakit zer egin behar deten. Ez daukat ideiaik ere.



**Karmele  
Aizpuru**

Etxian ikasten det eta dexente. Orain 5.mailan nabil Maria eta Josen. Ni azterketak baino askoz ere lehenago hasten naiz ikasten.

**MILA ILE APAINDEGIA**



**Ile - kosmetikan diplomatua**

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
**ZUMAIA**

*Belardenda*

**Paki**



erribera 2  
Tlf: 143156

**OSASUN NATURALA**

**ONCE**

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**



# Urtebete pasa al da?

## 1.urteurrena ospatu genuen aldizkariko partaideok

**Konturatu gabe pasa ohi da denbora, eta orain ere oharkabean harrapatu gaitu gu geu ere. Urtebete pasa al da? 13.alea atera behar al degu? hala dirudi, eta ondo bagera gerra ematen jarraitu nahi genuke, zuek denon laguntza eta baimenarekin, noski.**

Lehen alea inprimategira eraman genuenean ez dakit nola hango langileak ez ziren suizidatu: portadako montajea beraiek ez zuten programa batean egin genuen, txapuza bat zen, publizitate guztia goitik behera aldatu behar zen, diskete batzuk falta ziren, ... Han etorri ginen Oñatitik falta ziren gauzen bila, izerdi larria gainetik kendu ezinik.

Ale hura buzoneatu eta komentario nahiko onak entzun genituenez, ilusioz ekin genion lanari. Udara zen eta orduan hartu genuen martxa pixka bat. Zalantza bat genuen ordea: hemendik aurrera jendeak erosiko al du aldizkaria? Egia esan harpidedun gutxi samar genituen hasieran, eta ez genuen ziurtasun haundirik. Hirugarrena bigarrena baino gehiago saldu zen. Animo!

### **Kritika gehiago jasotzea komeni zaigu batzutan**

Kurtsoaren hasierarekin batera, urrian, berriz ere ordutegiaren arazoarekin egin genuen topo. Beraiek



borondaterik onena azaldu arren zailtasun izugarriak genituen institutuan lan egiteko. Eta orduan eman genuen orain arteko pausorik garrantzitsuena: udalarekin hitz egin eta Forondan gela bat erabiltzeko hitzarmena sinatu genuen. Honekin batera eta diputazioaren laguntza bat aprobetxatuz argazki kamara bat, grabagailuak, armairuak eta geuretzako ordenagailu bat erosi genituen. Honekin askoz askatasun gehiago izan degu geure lanak aurrera eraman ahal izateko.

### **Gure martxa**

Bilerak ere Forondan bertan egiten ditugu, aurreko zenbakia kaleratu eta ahalik eta azkarren. gai nagusiak zein izango diren zehazten degu eta lanak partitu, bakoitzak ahal duenaren arabera. Geró izaten dira kontuak, hil amaieran, denok ere geure gauzak azkenengo momenturarte ez ditugulako egiten eta kolaboratzaileen lanen bat falta izaten delako ia beti. Maldizio batzuk bota eta dena konpontzen da, ordea.

Azken zuzenketak egin ondoren,



Hasieran Institutuan aritzen ginen. Ordenadore asko, baina asti gutxi!

**IZETA**  
orrastegia  
Urumea 6  
Tlf: 862083

**Enda eta unai**

- SUKALDERAKO ALTZARIAK
- ELEKTROGAILUAK
- BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8  
Telefona: 861094



Oñatira eraman ohi degu guztia, disketetan sartuta; argazkiei zerbaki bana jartzen diegu non joan behar duten jakiteko. Hasieran bezela ere ez, baina oraindik lan dexente ematen diegu Gertuko langile jatorrei. Kanpoko kolorea han erabaki eta etxera! Bi egunean dena prest egoten da eta normalean institutura bidaltzen digute aldikaria rekadista batekin.

**Behar-beharrezkoa degu zuen laguntza**

Horixe izaten da momenturik pozgarriena: aldizkaria hartu, bere orrietan murgildu eta gehiena txukun samar atera dela ikustea. Hurrengo lana izaten da kanpoko harpidedunei Baleike postaz bidali eta herriko harpidedunen sobre eta pegatinak prestatzea. Gogoratzen det oraindik hasieran helbide guztiak eskuz idazten genituela. Izar eta konpainia aritzen dira harpidedunei eta publizitatea jarri dutenei aldizkaria txintxo-txintxo banatzen.

Salmenta puntuetan jartzearekin

*Neskak beranduxeago etorri ziren. Hori da edukazio falta!*



batera aurreko zerbakiaren aleak jasotzen ditugu, eta poza ematen du gutxi antzean geratu direla ikusteak. Artistak Erribera kaleko Errotakoak dira, hilero-hilero eramandako 75 aldizkariak saltzen baitituzte.


Beste bilera bat antolatu, aurrekoaren balantzetxo bat egin eta berriz ere martxan jartzen da Baleike berri baten gupila. Bitartean komentarioak egiten dizkigute: "Hau gaizki jarri dezute", "Pasatu egin zerate beste honekin", "Hura nahiko ondo zio", eta abar. Jendea beldurtu egiten da gure neska txikiak Erriberan

ikusten dituztenean kamara eta grabagailua eskutan hartuta, baina gero inkesta izaten da aurrena irakurri ohi degun atala. Kritika gehiago jasotzea komeni zaigu batzutan, hala ere.

**Ospakizunak**

Ospakizun txiki batzuekin iritsi da urteurrena. Komiki lehiaketa bat antolatu degu eta kantalditxo bat ere Oxforden (begiratu azken orria). Bestalde kafea hartzera bildu ginen kolaboratzaileekin eta Txapartegin hojaldrezko tarta eder bat enkargatu genuen, ia lau kilokoa, oraingoan guretzako.

Azkenik, betiko oharra; guk pelmada ematen jarraitzea nahi badezu behar-beharrezkoa degu zure laguntza: proposamenak, ideiak, iritziak, gutunak, oharra, eta abar luze infinitoa. Esker mila, mila esker. esker aunitz, eskerrik asko, orain artean zuen laguntza, ekonomikoa ere bai baina batez ere bestelakoa, eskeini diguzuen guztioi. ■



*Hauxe da Forondan degun txoko maitea.*

**Surf**

Torre Luzea, 2  
Tel. 83 50 24  
20800 ZARAUTZ

Erribera, zig  
Tel. 86 23 69  
20750 ZUMAIA

ARRAIN ETA MARISKOAK

**7 MARES**


BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK


**leize TABERNA**

Juan Belmonte, 6  
Tel. 860415 ZUMAIA










AH.



## BESARKA NAZAZU



bakardadea uxatzen du, beldurra kendu, sentimenduei atea ireki, autoestima indartu, zahartzaroa atzeratu eta jateko gogoa menperatzen laguntzen du, gutxiago jaten baitugu besarkadekin elikatzen garenean.

Gainera tentsioak murrizten ditu, lo hartu ezinaren aurkakoa da, beso eta besagaineko muskuloak ondo mantentzeko balio du, txikiak direnean luzatze ariketak egiteko balio du, altuera handikoak makurtzeko ariketak egiteko oso ona da eta gainera demokratikoa da, edozein izan baitaiteke besarkada baterako hautagai.

Lotsatia bazara edota hitz egitea kostatzen bazaizu, komunikatzeko ere bide egokia dugu besarkada.



Kontaktu fisikoa atsegina ezezik beharrezkoa ere bada. Adituek diotenez elkarren arteko kontakto hori behar-beharrezkoa da fisiko eta emozionalki ondo izateko.

Esperimentu batzuk egin dira, eta kontaktu fisiko horiek zera egiaztatu dute:

- Gure burua eta ingurua hobeto ikusten dugula.
- Haurren hizkuntza garapenean eta beren koefiziente intelektualean eragin baiezkorra duela.
- Ikutzaile-ikutuek neur ditzaketen aldaketa fisiologikoak eragiten dituztela.

Ikutzeko era asko daude, baina besarkada besteen aldean oso berezia da eta eragin handia du gure sendakuntza eta osasunean.

BESARKADA... goxoa da,

Bihotzez emandako besarkada batek mila hitzek baino indar gehiago du.

Besarkada bidez, gauza asko esan daitezke:

- "Badakizu edozein momentutan konta dezakezula nirekin"

- "Benetan ulertzen dut sentitzen duzuna"

- "Nire poza adierazi nahi dizut eta elkarrekin ospatu"

- "Zure tristuran parte hartu nahi dut..."

Txiki-txikitatik ikusi eta sentitu ditugu besarkadak. Jaio ginenean denen besoetan egoten ginen, baina hazten joan ginen heinean besarkadak gehienbat maitemindu eta amoranteen esku geratu direla konturatzen joan ginen. Baina ekintza fisikoa baino zerbait gehiago da.

Zenbat aldiz besarkatuko genukeen eta, lotsaz, esku bat bestearekin lotu eta gogoekin geratu gara? Zer du ba txarra besarkatzeak? Besarkadaren onura eta beharra aldarrikatu nahi ditugu.

Sarri eta ondo besarkatu.

Besarkada bat...

Besarkadei buruz gehiago jakin nahi baduzu ... KATHLEEN KEATING, *Abrázame*. ■



# ZUMAIÁ



## AUTO-ESKOLA



\* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua  
 \* Praktika eta azterketak Azpeitian  
 \* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea  
☎ 861018
20750 ZUMAIA



inportaturiko erropa  
 eta artisautza  
 Basadi 3 Zumaiá





## Motxian hi!

Nor: Imanol Urbieta  
Nola: "Txupako"

- Zer gorrotatzen dezu?  
Faltsukeria
- Zerk sortzen dizkizu hotzikarak?  
Sentimendu fuerteak
- Arraia ala haragia?  
Arraia
- Zertan reenkartatuko zinateke?  
Gizonez
- Zumaiako txokorik ederrena?  
Nere etxea
- Eta zeurea?  
Burua
- Panderua ala bonboa?  
Panderua, panderua
- Maitatu ala maitatua izan?  
Maitatu
- Ilargian zeinekin elkartuko zinateke?  
Inorekin ez
- Zer emango zenioke zure izaeratik beste norbaiti?  
Entzuteko gaitasuna
- Eta zer hartuko zenioke beste norbaiti?  
Pazientzia
- Esaera zahar bat.  
Urrutiko intxaurrak lau, dozena bat eta lau
- Panderua jo larrua ...  
Eta alaitu mundua

## Kontu-kontari

### EARRA ORDUA!

Ba omen ziren Zumaian baserrian bizi ziren hiru anai, zeharo zurruteroak hirurak, eta asteburua iristerakoan herrira jeisten zirenean diru guztiak ardotan gastatzen omen zituzten. Ezin omen zuten horrela segi eta erabaki bat hartu beharra izan zuten: "Hemendik aurrera ARDUA aipatzen dunak berak pagatu beharko dizkik danak!"

Pasa ziren egun bat, eta bi, eta denak edateko amorratzen zeuden. Halako batean anaietako batek, ezin agoantaturik, esaten du:

- Earra ordua!

Eta besteak ixilik.

- Earra ORDUA!- berriz ere.

- Baleo!- bigarrenak.

Eta hirugarrenak:

-Ekaaarriiiiiiiii!



### ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL  
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea  
20750 ZUMAIA  
Tel. 143310

LARRIALDIAK  
- 24 orduetan  
- Zeure etxean  
- Telef. 900-282828  
Abonatu zbkia: 247790

### BIZKOR FOTOKOPIAK

- \* Enkuadernaketak
- \* Plastifikatzeak
- \* Fax publikoa
- \* Bulegoko materiala

Basadi, 14 behea Tfnoa: 143120  
ZUMAIA Fax: 143120



# Mountain Bike-aren arrakasta

## Bide labur bezain bizkorra egin kirol berri eder honek

Mountain Bike-a 1977. urtean sortu zen Estatu Batuetan. Orduetik urte gutxi pasatu diren arren, kirol honek izugarrizko arrakasta izaten ari da mundu osoan. Urte guzti hauetan izan duen bilakaeraz eta beste gauza batzuetaz hitzegiteko, Andoitz Korta eta Sabin Arana herriko mendiko txirrindulariekin jardun gera.

Baleike

Hain bizitza laburreko kirola izanik, mendiko bizikleta mundu guztian zehar hedatu den kirola da, bai afizio gisa eta bai konpetizioko kirol modura ere.

Andoitz eta Sabinen iritziz "mountain bike-aren sorrera zerbait logikoa izan da. Naturarekin kontaktu zuzenean lasaitasun osoz egoteko aukera emateaz gain, bizikleta honek mendian nahiz errepidean ibiltzeko posibilitatea ematen du". Bietarako ezaugarri aproposak biltzen ditu: gogorra, arina eta azkarrak dira bizikleta hauek.

Gizartean izan duen harrera bikaina erabakiorra gertatu da komunikabideen arreta pizteko orduan. Bestalde, hurrengo joku olinpikoetan kirol ofiziala izango da eta honek ere lagunduko zuen komunikabideek interes gehiago azaltzeko unean.



Talai-  
Mendiko  
aldapan  
behera,  
saltoooo ...

Mendiko bizikletan gero eta jende gehiago ibiltzea, ez da moda kontu bat. Modak denboraldi batez egoten dira eta gero desagertu egiten dira. Fenomeno sozial bat bihurtu da; jende pila batek praktikatzen du mundu guztian, oso zabaldua dago.

ere antolatzen dira beste proba batzuk".

### Konpetizioa

Duela urte batzuk lasterketa gutxi korritzen ziren, antolaketa handiegirik gabe. "Orain berriz, askoz koordinazio hobea eta serioa dago. Txapelketa asko egiten dira: Munduko Txapelketa, Europakoa, Espainiakoa e.a. Euskal Herrian

**Urtean zehar  
zumaiarrak oso  
fin aritu dira**

Mountain Bike-an modalitate ezberdinak daude, baina ezagunenak jeitsierak eta rally-ak dira, jendearentzat behintzat. Denboraldia maiatzean hasi eta udazkenean bukatzen da, tartean era guztietako lasterketak egiten direlarik.

**goofy**  
HAUR JANTZIAK  
Amalako plaza, z/g  
Telef. 860959  
ZUMAIA

**agustin**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA  
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1  
20750 ZUMALIA Telefonoa: 862430

**CORO  
PRIETO**  
Estelcista  
Bonifazio Etxegarai plaza z/g  
Telefonoa: 861322



Bi txirrindulari zumaiar hauek jeitsieran zentratu dira gehienbat. "Esan beharra dago, modalitate batean edo bestean aritu, erabili beharreko materiala ezberdina dela eta oso zaila da espezialitate batean baino gehiago parte hartzea konpetizioetan, oso garestia irteten baita". Hala ere, hauetan ere jarduten dira, baina afizio modura.

**Zumaiarrak oso ondo**


Emaitzei dagokienez, zumaiarrak oso fin aritu dira. Iaz, Ibai Korta bosgarren geratu zen Espainiako Jeitsiera Txapelketan eta Sabin Arana bigarren Euskadiko Txapelketan. Honetaz gain, beste hainbat postu aipagarri lortu zituzten. Aurten ere bide horretatik jarraitzea espero dute eta ahal izanez gero hobetzea.

Zumaiarren maila ona dela esan badegu, Euskal Herrikoa Espainiako hoberenetakoa dela aipatu digute biek. "Jeitsieran maila altuena Euskadik du eta rally-etan ere puntan dabil".

**Mendiko bizikletan ibiltzea fenomeno sozial bat bilakatu da, mundu osoan hedatu dena**

Beraz, jaio berria den kirol honek bide laburra egin badu ere, indar handiz ekin dio eta gizartearen errotuta dagoen kirola degu gaur egun. Dituen ezaugarriengatik gainera, etorkizun oparoa iragartzen zaio.

Natura eta kirolaz era berean disfrutatzeko aukera paregabea degu mountain bike-a, dudarik gabe. ■



**PIRAGUISTAK BIKAIN**

Maiatzean Sevillan izandako Espainiako II Kopan bigarren postua bikaina lortu zuen herriko Itxas-Gain taldeak, guztira parte hartu zuten 34 klubuen artean. Aipagarria da Eñaut eta Oier Aizpuruak senior maila K-2an lortutako garaipena eta baita Marijo Mendizabal eta Itziar Lopez kategoria berean lortutako bigarren postua. Segi horrela!

**FUBITO TXAPELKETA**

Dagoeneko hasi da polikiroldegian burutzen den urteroko futbito txapelketa. Oker ez bagaude 32 taldek eman dute izena eta 7 multzotan banatu dira. Santio eguna bitartean arituko direnez emango dizuegu hurrengo hilabetean txapelketa honi buruzko berri gehiago.



Xabin eta Andoitz batez ere jeitsieretan aritzen dira.

<p><b>KOSTA GAS</b></p>  <p>GAS ETA KALEFAZIO INSTALAZIOAK</p> <p>Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)</p>	<p><b>expert</b> </p> <p><b>ELEKTROGAILUAK</b></p> <p>Mertxe Aizpurua</p> <p>expert eta Repsol-Butanoren Banatzaile Ofiziala</p>
--	--


**GURE TXOKOA**

**TABERNA**

Kaxuelita eta pintxo ezberdinak

**San Pedro kalea Zumaia**





## Moitu hadi gazte!!

Uda iristear dago eta urtaro honekin batera etorri ohi dira herriko eta inguruko festa gehienak. Badakigu festetarako bakarrik ez dagoela, baina Gazte Batzordeak urtero bezela zenbait gauza antolatu nahi ditu.

Aurrena San Juan Eguna daukagu. Iaz Itzurunen izan zen giro ederra gogoan izanik aurten ere zerbait berezia antolatu nahi da, baina horretarako beharrezkoa da jendea elkartu, ideia frexkoak bildu eta dena ondo antolatzea.

San Pedroak datoz segidan eta hauetan gauza askoz gehiago egin behar dira: txosna, txapelketak, bazkari herrikoia, ...



Guzti hau antolatzeko bilera bat egingo degu. hilaren 16an, gaueko 10etan, Oxforden.

Lagunekin hitz egin, zerbait pentsatu, eta ilusio eta gogoz etor hadi gazte!!!



Gazte Batzordearen urteurrenaren ospakizunen artean Frontoi Txikiko kontzertua izan zen arrakastatsu eta jendetsuena, zalantzarik gabe. 12ak aldera hasi zuen kontzertua The Window Ventanas taldeak, eta musika ona jotzeaz gain abeslariak espektakulu ederra eman zuen, dantza zoroak eta akrobaziak eginaz. Ondoren Jo Ta Okupatu izan zen jende gutxiago egon arren martxa polita jarri zuena. Noiz izango ote degu hurrengo kontzertua?

*Arkupe*  
Okindegia  
eta gosariak  
Kale nagusia, 2



**OPTIKA  
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1  
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Bukatu berria den Idazketa Tailerretik sortu den *Alper Saisetik* ipuin labur bat bidali digute argitaratzeko. Oraingo hau, Korsario beltzaren alabaren batutaren menpe, lehorreko enbidiosa batek, kostaldekooi xaxatuz idatzitako ipuitxo bat da. Kontuz, benetan gerta ez dadin!

Noizbait pentsatu al duzue kostaldekook zer gertatuko litzatekeen halako batean ilargi-berriko marrea bizi batek itsasoko urak eramango balitu?

Goizean jeiki eta berebiziko ixiltasuna eta barealdia somatuko zenukete orain itsasoaren burrundak estaltzen dituen soinu txikitxoak entzungarri bihurtuko bailirateke; itsasoko olatuen zarataren ordez txoritxoan txioa.


Kaia aldera irten eta itsasorik ez, alajaina! dena lehor. Haseran patxadaz hartuko zenuteke egoera, "etorriko da joan den bezalaxe".

Baina gauak joan egunak etorri.... ilargiak itsasoa itzuleraziko ez balizue?

Arrantzuntziek hondar gainean kilometroak eta kilometroak egin beharko lituzkete uretara iritsi aurretik; agian gero uretan ibiliko liratekena baino gehiago. Lan ederra! Hamaika izerdi bota ondoren bixigu pare bat eta ziento bat sardina harrapatzeko. Lehenez gain, egoera ederra arrantzaleena, itsasoa bilatzekotan basamortua zeharkatu behar; Egoerak luzera egin ezker, ziurrenik orain lehorrekoak deritzozen gunetara joan beharko zenukete erreka eta putzu-zuloetan amuarrainik geratzen ote den edo.

Turista eta holakoei ere adio esan behar; ez pentsa orain oporrak kostaldean igarotzen ditugunon bixitarik izango zenuketenik; akaso zeuok aldatu beharko zenituzkete azturak. Guk, gure aldetik jatetxe eta tabernetako prezioak "egokituko" genituzke zeuon parera. A ze komeria! senargaia edo andregai bilatu nahi duenak ere barnekaldera jo behar.

Eta estropadak? akabo hauek ere! Arraunean ibiltzen diren mutil gihartsuentzat hare gaineko



## ITSASOA BASAMORTU

maratoiak antolatu ezean ibaian gora egingen dute euren trainerekin. Orduan ez litzateke horrenbeste "aupa Orio" entzungo.

Baina ez kezkatu, gizakiok beti izan baitugu egoerarik latzenera ere ohitzeko habilitadea eta halakoren bati ere aurkituko zeniteke irtenbidea.

Itsasoarekin lotutako bizimodua alde batera utzi eta lautada bikaina zenukete edozertarako. Agian arta-soro bat jartzeko ez litzateke lurrik emankorrena; baina, tira, Afrika aldetik ganbeilukume batzuk inportatu eta aukera paregabea nazioarteko merkataritza indartzeko. Zortedun zinatekete, gaur egun hondartzetan koka-kola frexkoa saltzen ibiltzen zaretenok, karramarroez gain ganbelu-zain egarritu asko ibiliko bait litzateke aurrera eta atzera hare eta gatzezko itsasoan.

Hori bai, denboraren poderioz itsasoa zer den ahaztu eta zuen herrixken eraldaketa erabatekoa litzateke. Izan ere, orain iparrera begira bizi baitzareté eta gerora, zuen etxeetako sarrera nagusiak hegoaldera begira jarriko zenituzkete eta atzeko atea eta komuneko leihoa basamortura begira.

Zer, begiratu al duzue gaur gaueko ilargi-berriak itsasoa eraman ote dizuen?

**Lehorreko bat.**



JUSTA  
TABERNA  
EGUNEROKO  
BAZKARIAK

Erribera kalea 20, Zumaia

## KALARI TABERNA JATETXEA

- \* Eguneko menua
- \* Plater konbinatuak
- \* Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA




# San Pankrazioak joan ziren ...



Bezperako parranda eta karaokearen ondoren, igande eguerdian eta eguraldi ederrarekin euskal giroa nagusitu zen Estazio aldean. Trikitilariak ambientea berotu ondoren dantzari txikiek erakustaldi polita egin zuten han bildu zen jendearen aurrean.

Gazte gutxi hurreratu zen bertara. Zergaitik ote? Batzuk behintzat azaldu ziren eta argazkikoek bertso saio koxkor bat egin zuten arraunlariak, bertako festak eta beste hainbat gauza aipatuz.



Azkenik, zaldi-proba izan zen eta jendea ikusmin haundiarekin zegoen. Joxe Ramon Aristondoren zaldia oso errez nagusitu zitzaion Valentin Eizagirrearenari, lehenak 650 kg-ko harriarekin 54 plaza egin zituen bitartean, besteak 29 besterik egin ez zituelako.



**BASUSTA  
ERRETEGIA**  
M<sup>o</sup> Dolores Aizpurua  
Pantxita Etxezarreta, 25  
Telefona: 862073 20750 ZUMAIA

**ZALLA  
TABERNA  
ERRETEGIA**  
Plater kombinatuak · Otartekoak  
OILASKO ERREAK  
San Pedro, 4 Tel: 862387  
ZUMAIA

**Galdona**  
  
burdindegia  
Mendaro maniñela, 1 20750  
Juan Belmonte, 15 ZUMAIA  
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46 (Gipuzkoa)  
Fax: 861330



# ... Eta badatoz San Pedroak

## Ekainak 28, Asteazkena

Eguerdiko 12etan Udaletxetik, TXUPINAZOA. Arratsaldeko 5etan Buruhaundi eta Erraldoien kalejira Tolosako Dultzainariekin batera.

6etan Eusebio Gurrutxaga plazan, ORTZMUGA taldearekin Haurrentzat Berbena. 7etan Udal Musika Bandarekin kalejira.

Gaeko 12etatik 4etara Eusebio Gurrutxaga plazan, ESTRELLAS AZULES musika taldearen saioa.

## Ekainak 29, San Pedro eguna

Goizeko 8etan Tolosako Dultzainariekin Goiz Soinua. 10etan Udal Musika Bandak "Alkate Soinua" joko du, eta ondoren Prozesioa eta Meza Nagusia.

Eguerdian Musika Bandarekin Kalejira E. Gurrutxaga plazara, bertan 12,30etan Kontzertu Berezia eskeiniko duelarik. 1,30etan Kalejira Dultzainariekin.

Arratsaldeko 5etan Odieta Pelotalekuan, Eskuzko Pelota Partidu Profesionala. 6etan Erribera kalean, Postre lehiaketa.

Gaeko 12etan SU ARTIFIZIALAK Urolaren itsasoratzean, Pirotecnia Zaragozana etxeak eskainita. Jarraian Dultzainarien eskutik, Kalejira plazaraino.

Gaeko 12,30etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Udal Musika Bandarekin dantzaldia. Atsedendietan dultzainarien saioa.

## Ekainak 30, Ostirala

Goizeko 9etan Goiz soinua Tolosako dultzainariekin.

Egun osoan zehar goizeko 11,30etatik 1,30etara eta 4,30etatik 8,30etara, Eusebio Gurrutxaga plazan, Haurrentzat Parke Berezia.

Gaeko 11,30etatik 3,30etara BASAJAUN musika taldearen saioa.



## Uztailak 1, Larunbata "KUADRILENEGUNA"

Goizeko 10etatik letara eta 4etatik 7etara Oxforden San Pedrotako III. Scalextric Erraldoia.

Goizeko 11etan ITURENGO ZANPANZARREKIN kalejira.

Eguerdiko 2,30etan Eusebio Gurrutxaga plazan, Bazkari Herrikoa. Ondoren Eskoba Txapelketa. Arratsaldeko 6etan E. Gurrutxaga plazan, Herri Kirolak.

Gaeko 10etan Odieta Pelotalekuan, San Pedrotako VII. Zesta Txapelketako azken partiduak. Gaeko 12etatik 4etara URRATS taldearen saioa.

## Uztailak 2, Igandea "DANTZARI EGNA"

Goizeko 8etan Itzurun hondartzan, zezenak. 9,30etan Udal Txistulari Bandarekin Goiz soinua.

Goizeko 11,30etatik 2etara herriko kaleetan zehar dantzari taldeen ekitaldiak.

Arratsaldeko 5,30etan Alarde Berezia E. Gurrutxaga plazan. Arratsaldeko 6etan Erriberan, saskibalo txapelketa.

Iluntzeko 8etatik 9,30etara eta 10,30etatik 12etara JOKIN ETA AZKONABIETA taldearen saioa.

## SAN ROMUALDOAK ERE BAI

Aurten ere Aita-Mari, Basadi eta inguruko auzategietako jaiak izango ditugu, 16tik 18rako asteburuan.

**Ostiralean, 16an, ZUMAI** Txarangarekin hasiko dira jaiak, eta gauean BERBENA izango da *Belea Band* taldearekin.

**Larunbatean** goizeko 11etan HAURRENTZAKO JOLASAK izango dira: pintura lehiaketa, sokatira, txiste txapelketa, eta abar.

Arratsaldeko 4'30etan MUS txapelketa garrantzitsu bat izango da, sari ederrekin.

7etan SARDINJANA izango da. Eta gauean DANTZA TXAPELKETA. Goizeko laurak bitartean DANTZALDIA eskeiniko digu *Fabula Orkestak*, eta atsedendietan Karaoke ikuskizunak.

**Igandean, 18an,** eguerdian Zumea ikastolako BERTSO-LARIAK eta TRIKITILARIAK egongo dira, eta joaten diren guztiei pintxo morunoak emango zaizkie.

Eta azkenik, arratsadean HERRI KIROLAK izango dira: Gorriti eta bere abereak, Iñaki Perurena eta Aizkolariak. ONDO PASA!!

**ERROTA**  
**ERROTA**  
OPIL - OKINDEGIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68  
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01  
ZUMAIA

**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2  
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

**ARGIA**

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93  
ZUMAIA



## Zuloaga oroitzuz

Aurtengoan 125 urte betetzen dira Ignacio Zuloaga eibartarra jaio zenetik eta 50 berriz gure artetik aldegin zuenetik. Hau dela eta, Zuloaga Museoak eta Udal Kultur Batzordeak hainbat ekitaldi antolatuta dituzte.

Ekainak 14an, Foru Aldundiaren areto nagusian HITZALDIA, Francisco Calvoren eskutik: "Zuloaga 1870-1945; su pintura a través de la historia". Hasieran eta amaieran musika ekitaldia: Jose Luis Francesena (organoa) eta Garikoitz Mendizabal (txistua).

Ekainak 15, osteguna, Aita Mari zineman 7'30etan, Jose Ignacio Telletxea Idigorasen HITZALDIA: "Los amigos de Zuloaga en Santiago Etxea". Jarraian KONTZERTUA: Eibarko SOSTOA eta Zumaiako SAN PEDRO abesbatzak.

Ekainak 17an, larunbatean, 7etan Parrokian OMENALDI MEZA, eta bertan "San Francisco de Asís" koadro ederra izango da ikusgai. Jarraian Musika Eskolako Trikitixa taldearekin kalejira eta DEBAND musika taldeak alaituriko luntxa.

Ekainak 22, osteguna 7'30etan Zuloaga Museoan Miguel Ortega eta Mariano Gomez de Casoren



HITZALDIAK eta jarraian Jose Luis Francesena eta Garikoitz Mendizabalen MUSIKA SAIOA.

Ekainak 23, ostirala, 7'30etan Foru aldundiaren Areto Nagusian omenaldi ekitaldiei amaiera, MAHAI-INGURUA: Juan Ignacio Uria, Vicente Du Corrau, Matias Diaz Padron eta Camino Paredes.

Guzti honetaz gain beste zenbait ekitaldi ere antolatu dira:

- Zuloagaren lantegia eta bilduma ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dira, bai herriko ikastetxeentzat eta baita bisitaldi irekiak ere.

- Uztailean Zuloagaren lanaren inguruan "Pintura Tailerra"

- Abuztuan Uda Musikalaren XI.edizioaren barne, omenaldi kontzertua.

## ZUMAIAKO VII ARGAZKI LEHIAKETA

Zumaiako Argazki Elkarteak antolatzen du, udalaren babesean eta Gipuzkoako zaletuei zuzendua dago. Argazkiak paperean aurkeztu behar dira, zuribeltzean eta laborategiko edozein teknika onartzen da.

Gaia libre da eta gehienez lehiakide bakoitzak hiru lan aurkez ditzake. Gutxienezko neurria 18 x 24 cm-koa da baina guztiak 40 x 50eko kartulina mehean ezarriak. Lanak Foronda Kultur Etxera bidali behar dira eta lan bakoitzaren atzean datu pertsonalak jarri beharko dira.

Ekainaren 16an ixten da lanak aurkezteko epea eta 23an jakineraziko da epaimahaiaren erabakia.

Sariei dagokienez 1. goari 45.000 pezta emango zaizkio, 2.ari 35.000 eta hirugarrenari 25.000. Bertako onenak 15.000 pezta jasoko ditu.



**AIZPURUA**

LIBRERIA  
OPARIK

Aita-Mari Auzategia, 17  
Telefona: 861569  
20750 ZUMAIA



**ERTZ INFORMATIKA**

**Mendaro Martiela 3**

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

-ORDENAGAILU P.C

-INPRIMAGAILU

-CD-ROM

-KRISTALEZKO PANTAILAK

-DISKETTEK



ANTZERKIA

## Oikian, "BERRAITONAREN BILA"

Ekainak 10  
Larunbata

Joan den mende amaieratik gaur egunerarte Oikian izan diren gertaerak, bizimodua eta aldaketak kontatzen dizkiote Argentinatik etorri den neska gazte bati baserri bateko eta besteko aitona.

Gaueko 10'30etan  
Bertol Deunaren Elizan

Arantxa Ugarteren zuzendaritzapean oikiarren kontuak oikiarrek kontatuak.



ZINE FORUM

## OHARRA

Aurtengo denboraldia amaitu ondoren hurrengorako jendeak ze pelikula ikusi nahi lituzkeen jakitea komeni da.

Horretarako zeure gustoko pelikulen zerrenda bat egin eta utzi ezazu Foto Mertxe, Foronda edo eta Aizpurua liburudendan. Mila esker.

## ARGAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA



ZUMAIKO VI ARGAZKI LEHIAKETA  
VI CONCURSO FOTOGRAFICO  
"VILLA DE ZUMAI"

ARGAZKIAK: J. COLARICA  
ZUMAIKO ARGAZKI LEHIAKETA  
EMPLEA I. PIRRODIA  
ZUMAIKO SIAL TOP FERRA/OTZARI. APTOSAMIENTU DE ZUMAI

Ekainaren 23an Zumaiako VII Argazki Lehiaketako sari banaketa izango da arratsaldeko 7etan Foronda Kultur Etxean.

Orduan irekiko da, gainera, argazki onenak bilduko dituen erakusketa eta uztailaren 9a bitartean izango da ikusgai

## ERAKUSKETA

"Elektrografiak"

Ekainaren 3tik 21a bitartean Helena Aierbe eta Maria Jose Aurkaux-en lanak ikusgai, ohizko ordutegietan



## ARTISAU AZOKA

Ekainak 24ean,  
goizeko 11etatik 2etara  
eta arratsaldeko 5etatik  
8etara, Eusebio Gurrutxaga plazan



 Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAI AUTOAK**

Juan Belmonte, 45  
ZUMAI

Telefona: 861485  
Fax: 143143

EGUZKI  
PUB

KOKTEL  
BEREZIAK

Basadi Auzategia  
9-A 2-B  
ZUMAI

**ITSASKI**  
supermerkatua

 Urumea kalea z/g  
Zumaia





## IRAKURKETAKO AUKERAK

Udal liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.




### Euskaraz

**NEREA ETA BOK** Laura Mintegi  
**EHIZTARIA** Richard Stark  
**ESTEBAN WERFELL** Bernardo Atxaga  
**ZERUAK** Bernardo Atxaga  
**PAULOV-EN TXAKURRAK** Harkaitz Cano  
**HEGOALDEKO AUTOPISTA** Julio Cortazar  
**IPUIN ANKERRAK** Herodoto  
**LA NUOVA INNOCENZA** Claudio Magris

### Gazteleraz

**ROSA ROJA** Luis Camacho  
**DIARIO DE UN JUBILADO** Miguel Delibes  
**QUERIDO CORTO MALTES** Susana Fortes  
**EL PRECIO DEL PARAISO** Manuel Leguineche  
**LA CIUDAD DOBLE** Carlos Parellon

### Beste hizkuntzetako literatura (gazteleraz)




**CHAMPAVERT, CUENTOS INMORALES** Petrus Borel  
**RETRATOS** Truman Capote  
**DEUDA DE HONOR** Tom Clancy  
**EL ANGEL DE PIEDRA** Margaret Laurence  
**LA DAGA NEGRA** Eric Lustbader  
**LA BATALLA DE TEBAS** Nagib Mahfuz  
**MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES** W. Shakespeare

## ZUMAIAKO I.BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA

Ekainak 16a bitartean aurkez daitezke komikiak, Foronda Kultur Etxean. 14 urtetik gorakoek har dezakete parte eta pertsonaiak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.

Marrazkiak txuri-beltzean izan beharko dute, nahi adinako luzerakoak eta 18x25 neurrikoak.

Lanak bi sobretan aurkeztu behar dira; sobre txikiaren kanpokaldean lanaren izenburua edo egilearen ezizena jarri behar da, eta barruan lehiakidearen datu pertsonalak jarriko dira. Oinarriak bere osotasunean Forondan bertan eskura ditzakezu.



**TXALAPARTA**  
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2  
20750 ZUMAIA  
(Gipuzkoa)

Tel. 14 30 89  
Fax. 43 06 37

**JE MAR**

**LOREDE NDA**

LANDAREAK  
LOREAK  
HAZIAK  
ZERAMIKAK

Erribera, 1 Telefonoa: 860375  
20750 ZUMAIA



# Tapia eta Leturia Band

Baina nola? Hauek ez al zuten trikitixa jotzen? Ba bai, eta horretan jarraitzen dute, baina hau zerbait desberdina. "MARROIA" da bere izenburua, baina bertan kolore, zapore eta sentimen asko nahasten dira. Rock doinuak (batzuk oso gogorak gainera), Pop-a, Reggaea, Ska, Opera, Rai musika argeliarra, trikitixa, eta beste estilo batzuk dasta ditzakegu TAPIA ETA LETURIA BANDek eskaintzen duten menu goxo eta bariatu honetan.



Diska hau entzuten hasi eta abestiak aurrera doazen bitartean, jendeak jartzen duen aurpegia ikusi eta argazki karrete batean espresio horiek jasotzea gustatuko litzaidake. Harridura, sorpresa, eta farreak non-nahi izango dira seguru, horrelakoa baita lan hau. Musika eta musikari bikainekin landua, diska hau osatzen duten abestietako bakoitzak mundu desberdin batera eramaten gaitu.


Joseba Tapia, Xabier Berasaluze "Leturia", Fernando Leiza, Mikel Artieda eta Batiz-ek osatzen dute Tapia eta Leturia Band, baina hauek gain badira lan honetan euskal kulturako beste zenbait pertsonaia interesgarri. "MARROIA" hontan entzuten ditugun lehen hitzak denok ezagutzen ditugu: "Agur Maria graziaz betea ...", *Errosariyo santuba* abestiarenak. Arrate irratiko errosario bat dirudi, baina reggaearen erritmo beropian egindakoa; portzierto, Zumaiako Jesuskoa-koei eskaintzen zaie tartetxo bat bertan. Jakoba Errokondo usurbildarraren ideia bat da hau.

Xabier Montoia, M-ak talde desagertuaren abeslariak argi eta garbi uzten du bere ironia (ona) eta hitz freskoekin salaketak egin daitezkeela

*Kanibalaren kanta* honetan, bere estilo klasikoenean gainera.

"Ala" jarraitu ez arren ez dut txerrikirik jaten kazetaririk ere ez hara ze garbia naizen.

Trash Metal doinu gogorrenak



*Poeten Erresumak* dakartza, Asier Serranoren hitzekin eta beste askotan bezala Mikel Artiedaren musikarekin. Doinu arbiarrak *Ha bi bi* kantan datoz, oso modan dagoen Rai erako erritmotan. Islamiar erradikalek musika honen aurka daramaten kanpaina gogor horrek hil dituen Argeliako kantariei egindako omenaldi bat dirudi. Musika hau ezagutzen ez duzenok, nolako polita den konturatuko zarete.

Trikitixa eta bertsoak ere ageri dira *Txuplastaie* eta *Udazquen gau bateco amodio coplac* kantetan,

azken honetan Patziku Peruneraren letrarekin. Lan honetako kolaboratzaileen artean bertsolari asko daude: Andoni Egaña, Jexus Mari Irazu, Jon Sarasua, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio.

Mikel Markezek inork nahi ez duen ogi erre baten penak kontatzen dizkigu *Ogitxo Beltzarana* pop melodia batean. Futbolistak baloi bihurtzen dituzte eta alderantziz Burubal kanta umoretsuan.

Andoni Egaña supositorio bihurtzen da eta gorputz barruan zehar egindako bidaia intesgarri bat kontatzen digu, banda honen soinu klasikoek hip-hoparekin nahastuz.

Beste sorpresa ugari ditu diska zoragarri honek, baina zeuek zuzenean ezagutzera gonbidatzen zaituztegu. Marroia da izenburua, marroia azala eta marroia eta nahasia edukia ere, baina musika eta umore onak biltzen dira bertan.

Zerbait desberdina proposatzen digu talde honek, musikak mugarik ez duela azaltzen digu, eta musika lantzean norberaren sustraiak mantentzen daitezkeela argi utziz. Diskan azaltzen den azken esaldiarekin utziko zaituztet. Honek Gipuzkok e ideiarik be ezdekien, egia ote? ■

**TXOKO  
TABERNA**

Artadi auzoa  
**ZUMAI**

*Jesuskoa  
Patetxea*




*Txoca 86 17 39 • Oskia - Zumai*





**Gurutzegrama**



**EZKER ESKUIN:** 1.- Eginkizuna. 2.- Garaitu. Zilarren sinbolo kimikoa. 3.- Nekazaritza iharduerarako lanabesa. Erabat nekatu. 4.- Hutsa. Lurralde. 5.- Errepikatuz, gorotza. Euskal atzizki femeninoa. Nafarroako herria. 6.- Arte egilea. Ezin hitzaren erdian. 7.- Gaisoak. Ukan. 8.- Alderantziz, iridioaren sinbolo kimikoa. Multinazional ezaguna. Zulo hitzaren erdian. 9.- Lehenengoa. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Kemena. 10.- Iparraldean, berritsuak.

**GOITIK BEHERA:** 1.- Aurrerabideak. 2.- Ekar arazi. Bokala. 3.- Denbora. Titanioaren sinbolo kimikoa. Alkoholen bukaeran. 4.- Ohostuak. Argoiaren sinbolo kimikoa. 5.- Alderantziz, nor kasoaren plurala. Otarreak. 6.- Ikara. Tona. Poesia mota. 7.- Ohorezko hitzmate. Baieztatzeko. Zakur. 8.- Uranioa. Bihi. Kolore argi. 9.- Ekologista. 10.- Arabako herria. Zaku hitzaren erdian.


**HIEROGLIFIKOAK**

Etxetik aldeginuz gero, non biziko zara?



(Zu bi azpian)

Nongoa da?



(N aparta)

Zer egin dezu?

(Ez erreZ)

**Negar egiteko txistea**

**GIZON BATEK** emakume bati:

-Maria, gure arteko amodioa ezinezkoa da.

**Emakumeak:**

-Zergatik bada, ene Juan laztana?

**Gizonak:**

-Joño, horrexegatik ba, ni ez naizelako Juan.

**UMOREA**

**Moko**

KODRO-REN AUTOGRAFOA NAHI DUT!!



NIK BADAKIT NON BIZI DEN MOTEL...

BAINA GONBIDATU...



GOLENKALE-Ń!!




Mattin-ek, Irutxulon.



**AGURRAK**

Olarrito: Ez dekela olarro, hor alo dekela? Barrabilak!!



Mofli!!! Etzak dana jan!!  
Ez al hintzan 50 nebadito  
haiekin nahikoa bete?

Apolo eta Peloia: Mortadela Gurutze Gorrian dohain ematen die, edo amnustiatuko zaituztelakoan al zaudete? Txim-kult.

Neska txikiak: selektibitatean gutxi kopiatu, baina aprobatu eh?

Agur bat langileen kaleko neska bizkotxoei. Donosti gutxio eta animo esaminetan!

**OHARRAK**

Ostirala 16, gaueko 10etan Oxford-en Gazte Batzordearen bilera totala. Azaldu!!

Kaguen tandios! Azaldu!

**Salmenta puntuak**

- Jesuskoa
- Errota (Erribera)
- Errota (Basadi)
- Ogi Berri (Amaiako plaza)
- Ogi Berri (Basadi)
- Arkupe okindegia
- Aizpurua liburudenda
- Olano liburudenda
- Loitz liburudenda
- Alai janaridenda
- Nikol kafetegia
- Inpernupe taberna
- Zalla erretegia
- Foto Gar
- Arroa Beheko estankoa

DANTZARIAK • TXALAPARTA • ARRASATE  
 MUSIKAL BANDA • BITTOR AIAPE  
 SEBASTOPOLEKO  
 TITIRITEROAK • KAXIANO  
 MARKOS LANDA  
 BERTSOLARIAK  
 ANTZERKIA • GOZATEGI  
 HAUR JOLASAK • KONTRAIRO  
 ARKAITZ • OSKORRI • EXKIXU • E.H. SUKARRA...





# L<sup>e</sup>hiaketa

Nora doa kamioi hau? Ze kaletara sartzen ari da? Asmatzen dezuenon artean, **Txapartegi gozotegiak** eskeinitako tarta eder bat zozketatuko degu.

Utzi zure erantzuna eta datuak Foronda, ONCEko kabina edo Txapartegi bertan **ekainak 23a** baino lehen, eta zorte on!


Lehengo hilabeteko erantzuna JUANIN zen eta **Jone Zubiaurreri** egokitu zitzaion hojaldre tarta goxoa.

On egin!



**Baleike**  
Zumaiako herri aldizkaria

**AURKEZTEN DUTE**



**EKAINAK  
18  
IGANDEA**



**Arratsaldeko  
7'30etan**

**Oxford-en**

**FRANK DELGADO**

**(kantari kubarra)**